

“FRANCO IL EGIN DA” ”FRANCO... HA MUERTO”

(Ogeita amargarren urtean)

España’ko TV, 2n. katean ekiñaldi bat ikusi eta entzuten egon nintzan Franco il zanetik 30n. urtea zala-ta eta arrituta itzi ninduen abadeen eta Eleizearen aurka entzun nebazan salakuntzak. Euren artekoa zan Garcia de Kortazar. Nitzat gauza argia zan an berba egiten eben filosofoak eta edestizaleak ez ekilela ezertxu be gure burrukari buruz eta antxe bertan artu neban idaz-lan au idazteko erabagia.

Abade euskaldunak gogor be gogor jokatu gendun Franco’ren aurka eta jokabide orren ondorenak be gogorak artu genduzan. Ez ete dakie gizon jakitun orreik zer izan zan Zamora’ko espetxea, esaterako. Ez ete dakie, lenago, guda amaitu baiño be lenago, amazazpi abade gure lagunak il eba-zala Franco’k eta 500 abade euskaldun bialdu ebezala erbestera zigortuta?

Bear ba’da esango dabe: Abadeak bai, baiña gotzaiñak?

Gotzaiñak, nai ta nai ez, Franco’ren aldekoak izan bear, bere baimenagaz gotzain egiñak ziralako. Eta ori izan zan gure kurutze bat: Gotzaiñak geure aurka euki izatea. Alan eta guztiz be irakurri begie gure Mateo Mujika’ren “Imperativos de mi conciencia” agiria.

Baiña neuk urrago bizi izandako arazoetara sartuko naz orain.

Zortzi egun egin genduzan gotzaindegian sartuta, ingurua guardiz beterik geunkala, jakiak oso urri eta olaren gaiñean lo egiten. Ogeta amar bat abade izango giñan.

Gero, ekintza gogorrango batera sartzeko, Derio’ko Seminarioan artu genduzan gela batzuk, eta antxe igaro gendun illebeta osoa, gotzaiñak mezea esateko eskubidea be kenduta. Bertan barruan edo inguruan 120- bat abade giñan. Neu joan nintzan euren izenean Paris’ko irratira zabalkudea egiten eta gero Erroma’ra gure agiria Aita Santuaren eskuetan eldu daten. Neuk joan bear izan neban, beste iñok pasaportetik ez eukelako. Niri be kendu eusten, obeto esateko eroateko agindu, baiña ez nintzan joan eroaten eta gero ez ziran konturatu kenduta egoala.

Andik lasterrera barriro joan nintzan Paris’era La Ponpe kalean egoan España’ko Enbajadaren Eleizea artzen eta etxerantzean Donostia’ko gotzain-eleizan sartuta egon giñan gotzain-barriaren sarrera zalata.

Oreik orrela, urte batzuk geroago, 1970n urtean Zeanuri’ko parrokian izan ziran urrengo ekintzak, eleizearen orman egozan eta Franco’ren alde il ziranen izenak eukazan arri idatziak kendu nebazalako eta aiuntamentuari eleizara korporaziño lez ez etorteko esan neutsolako. Gutuna alkate euskaldunari euskeraz egin izatea be zigorbide izan zan.

Parrokian bertan egin eben”acto de desagravio”: Berrogei autobus joan ziran eta buru Gobernatzaillea, Col San Simon, eta Bilbao’ko Alkate-emea Pilar Careaga izan ziran. Gorrotozko aurpegi asko ikusi nebazan eta izen bako amabost karta artu be bai, geienak meatxuz edo zemaiz beterik, il egingo nabela esaten

180 000 pezetako isuna ezarri eusten, eta orde, illebeta egin bear izan neban, espetxe-antzer, Olite’ko Frantzskotaren lekaide-etxean. Nire esker ona lekaide on arei.

Eta gu orrelan, era bildurgarrian, aurrean erabiliak izan giñan aldi aretan, non egon ziran gaur izlari arro eta irain-tzaille diran jakitun orreik? Ez ete ziran egongo Madrid’eko Plaza de Oriente’n iltzeare egon Franco zarrari gure iraiñen parkamena eskatzen beste 500.000 espāñatarren artean? Areik ez ziran abadeak!

Euretariko baten batek esan leike: Ni orduan umea nintzan. Ba ederto, umea ba’ziñan ez zaite sartu elduen eta zarren alkar-izketara. Zagoz isillik edo berba egiteko jakin gauzak obeto!

Beste gauza asko be asko esan neikez, baiña gaurkoz naioa da. Jakin begie edesti-zaleak edestia zelan izan zan.

OLAZAR’tar Martin’ek

MAITASUNA

Lore bikaiña zara,
ederretan ederren
giza biotzetan,
zure usain eztia,
poza zabaltzen doa,
gizonen artean.

Bake ta ongi-naia
eskeinduten zabiltzaz
gogorik onenaz,
zure urre izatez
alkartuten dituzu
biotzak pozagaz.

Gizarteko lorra,
ixilik, ondu dozu
gizonen bizitzan,
zerua eta lurra
zeuk alkartuten dituzu
gizonen baratzen.

Lorerik ederrena
zeure izatez zara
mundu zabalian,
keska eta arantzak
larros biurtu dozuz
gizonen bizian.

Maitasun zoragarri,
zerua eta lurra
daukazuz aurrean,
txit, indartsua zara
gizonak goratuten
zorion bidean.

Lurreko zori ona,
on-giroz, sortu dozu
biotz minduetan,
eskerrak, maitasuna,
zure egintza onez
jarrai gizonetan.

Paulin